sabino
arana
fundazioa

MANDOBIDE, 6-3
BILBAO 48007
94 405 64 50

idazkaritza@sabinoarana.eus
www.sabinoarana.eus

# SABINO ARANA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

## I. ATALBURUA – ERAKUNDEA

1. artikulua.- SABINO ARANA FUNDAZIOA izeneko kultura- eta gizarte-fundazio bat dago eratuta, pribatua eta iraunaldi mugagabekoa berori, zein EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV) izeneko alderdi politikoaren mendekoa baita organikoki.

Fundazioak bere jarduerak gehienbat Euskal Herriaren lurralde-esparruan garatuko ditu.

2. artikulua- Fundazioak nortasun juridikoa du, baita jarduteko erabateko gaitasun juridikoa ere, legeek eta Estatutu hauek ezarritakoez beste mugarik gabe.

3. artikulua.- Sorrera-helburuak betetzea eta horri doakion guztia Patronatuaren ardurapean geratzen da. Fundazioa, nolanahi ere den, Estatutu hauexek eta beroriek interpretatzerakoan eta garatzerakoan Patronatuak ezarritako xedapenek arteztuko dute.

Aurreikusi ez denari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak xedatutakoak arteztuko du, bai halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen erregistroan eta Babeslaritzan, Kode Zibilean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritakoek.

Fundazio hau "EUZKO ALDERDI JELTZALEA–PARTIDO NACIONALISTA VASCO" (EAJ-PNV) alderdi politikoaren mendeko fundazioa da, eta hartarako araudi espezifikoa aplikatu dakioke.

4. artikulua.- Fundazioaren helbidea Bilbon dago, Mandobide kalea, 6-3.ean, nahiz eta Patronatuak gerora hura aldatzeko ahalmena duen.

Fundazioak, bere eginkizuna garatzea xede, establezimenduak eta mendeko bulegoak sor ditzake beste hiri batzuetan.

SABINO ARANA FUNDAZIOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ERREGISTROAN IZENDATUTA. ERREGISTROA 156. HIRUGARREN SEKZIOA. INSCRITA EN EL REGISTRO DE FUNDACIONES DEL PAÍS VASCO, REGISTRO 156, SECCIÓN TERCERA IFK/CIF: G48275077

## II. ATALBURUA – XEDEA

5. artikulua.- SABINO ARANA FUNDAZIOA irabazi asmo bako erakunde gisa egituratzen da, helburu nagusitzat euskal gizartean kultur arloan dauden beharrizanak asetzea hartuta, horretarako, denetariko ekimen soziokulturalak sustatuz.

Arreta espezifikoa ipiniko zaie, Euskal Herriaren historia, hizkuntza, kultura, etnografia eta errealitateari buruzko mota guztietako azterlanak eta ikerketak, eta bereziki pentsamolde abertzale, demokratiko eta aurrerazalea hobeto ezagutzen eta hedatzen laguntzen dutenak sustatzeari, garatzeari eta bultzatzeari. Horretarako, askatasunarekiko, demokraziarekiko eta norbanakoaren nahiz kolektiboaren giza eskubideekiko begiruneak iradokitako jarduerak antolatzeaz eta argitalpenak paratzeaz baliatuko da, izaera europazale eta mendebaldar sendo baten barruan, betiere.

Espiritu zabal horren barruan, lehentasunezko garrantzia emango zaie honako arlo hauei: diasporako euskal biztanleriarekin elkar ezagutzeko lokarriak sendotzeari; prestakuntzako jarduerak antolatzeari, eta, oro har, euskal identitatea sakonago ezagutzen laguntzen duen orori.

6. artikulua.- Helburu hori betetze aldera, Fundazioak, bitarteko ekonomikoek ahalbidetzen dioten heinean eta Patronatuak, kasuan-kasuan, onesten dituen programa zehatzei atxikita, ondoko jarduera hauek garatuko ditu, hain zuzen ere, guztiak beraren sorrera-helburua lortzearren:

- Azterlanetarako eta ikerketetarako laguntzak ematea.

- Biltzarrak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta urteurren historikoak antolatzea, bai eta kulturako, prestakuntzako eta humanitateen arloko beste ekitaldi batzuk.

- Erakusketa nahiz erakustaldi monografikoak egitea.

- Fundazioaren sorrera-helburuak garatzea eta betetzea xede, honako hauek prestatzea, gertatzea, argitaratzea eta ezagutaraztea: artikuluak, liburuak, aldizkariak, foiletoak, bideoak, filmak eta beste edozein motako ikus-entzunezko nahiz idatzizko euskarriak, direla orain daudenak, direla etorkizunean sor litezkeenak.

- Kideko elkarteak edo fundazioak sortzea edo, kasu bada, halakoetan parte hartzea, bere sorrera-helburuak hobeto gauzatzeko lagungarri zaizkionean.

- Ikerlanak eta azterlanak egitea.

- Euskal Herriaren historia berreraikitzen lagun dezaketen dokumentu- zein sentimendu-balioko aztarnak biltzea. Artxibo- eta museo-jarduerak.

- Fundazioaren gizarte-ingurunean sor litezkeen eta beraren xedearekin zerikusia izan lezaketen jarduerak bideratzea eta sustatzea.

- Bere azterlanen eta ikerlanen emaitzak argitaratzea.

- Sariak eta beste finantzazio modu batzuk ematea, egunkarietan, liburuetan, entseguetan, irratian, telebistan eta, oro har, beste edozein informazio-bide nahiz hedabidetan, orain daudenetan zein etorkizunean sor litezkeenetan, garatutako zereginei, bai halaber Fundazioaren xedearekin zerikusia duen edozein bizitza-esparrutan egindako lan emankorragatik nabarmendu diren pertsonei nahiz erakundeei.

- Patronatuaren Batzak, sorrera-helburuak lortzeko egoki deritzen beste zeinahi jarduera.

Baldin eta gerta baledi, antolaketako, ekonomiako nahiz beste edozein motako zioengatik, aipatu jardueretako batek jarduera orokorraren barruan bere funts berezkoa eta beregaintasuna dituela, orduan Fundazioak hura barne egitura bereizi gisa egitura dezake edozein unetan, dela Talde Lan, dela Lantalde, dela Institutu edo Iraskunde gisa, nahiz antzeko figurapean, baita barne arautegi berezi eta guztiz zuzkituz ere, baina beti, Estatutu hauetako 11. artikuluan aurreikusitako egitura bakar eta erkidearen barruan eta Patronatuak bera sortzeko, iraungiarazteko, edo are edozein unetan aldatzeko ere, duen aginpideari eta Fundazioaren kontabilitate bakarrari atxikita.

6 Bis artikulua.- Sabino Arana Fundazioa ondoko abiaburuetan oinarrituko da bere jardunbidean:

- Publizitatea eta gardentasuna; horretarako, Fundazioaren helburu eta jardueren berri nahikoa emango du, herritarrek, oro har, eta balizko onuradunek, bereziki, jakin dezaten.

- Inpartzialtasuna eta berezikeriarik eza jardueron onuradunak zehazterakoan, bai eta jarduerak eta prestazioak aukeratzerakoan.

- Jarduteko jarraibideak sustatzea, jokabide-kode eta jardunbide egokien kodeen bidez.

- Zerbitzurako izaera eragitea Patronatuko kideen artean, eta Fundazioaren interesak lehenestea norberaren interesen edo interes pribatuen aldean.

- Lankidetza zintzo eta iraunkorra izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.

- Fundazioaren ondarea eta errentak Fundazioaren helburuak betetzeko erabil daitezen zaintzea eta babestea, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legeriak diotenari jarraiki.

- Genero-berdintasuna sustatzea.

## III. ATALBURUA – AGINTE ORGANOAK

7. artikulua.- Fundazioaren ordezkaritza, eraentza eta administrazioa Patronatuari bakar-bakar dagozkio.

8. artikulua.- Patronatua beregaina da bere eginkizuna betetzerakoan, beregainki erabiliko ditu bere ahalmenak, eta beraren ekintzak behin betikoak eta apelezinak izango dira, Estatutuek eta Legeek ezarritakoez beste mugarik gabe.

9. artikulua- Patronatua ez beste inor da, Fundazioaren sorrera-helburuak eraginkortasunez lortze aldera, zuzenbidez behar diren ahalmen eta eskubide guztien titularra, eta Estatutu hauek berak interpretatuko ditu, mugarik gabe, betiere indarrean dauden legezko betekizunei jarraiki.

Patronatuak bere kide baten edo gehiagoren esku utzi ditzake bere ahalmenak, baita ahaldun orokorrak edo bereziak izendatu ere, eginkizun edo ardura erkidetuekin zein elkartasunezkoekin.

Nolanahi ere, indarrean dagoen legeriak xedatzen duenarekin bat egingo da eskumenen ordezkaritza.

10. artikulua – Ordezkatzeko, eraentzeko, antolatzeko eta administratzeko ahalmenik zabalenak baliatzean, Patronatuak mota guztietako ekintzak eta negozio juridikoak egin ditzake, Estatutu hauei eta Legeetan xedatutakoari atxikita.

11. artikulua.- Patronatua gutxienez bost (5) pertsonak eta gehienez bederatzik (9) osatuta egongo da; kideok EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiak izendatuko ditu, eta era berean, beraren esku geratzen da haiek kentzea, ordeztea, nolanahi eta une oro, baita berriro mugagabeko denborarako izendatzea ere.

Baldin EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiak patronatukide berriak izenda ez balitza eta izendatuek egoki ikus balezate kopurua mugaraino osatzea, hala egin dezakete, Fundazioaren sorrera-helburuetarako interesgarri izan daitekeen gaitasun pertsonala nahiz profesionala dituzten pertsonak izendatuz.

Modu horretara izendatutako kideek, izendatu dituzten patronatukideen izendapena iraungi artean jardungo dute karguan, eta beraiei dagokien izendatze-, ordezte-, ezeztatze- eta berritze-araubidea, azken kasu honetan mugagabea izan daitekeela, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiari edo horrek berorrek izendatutako patronatukiderik gehienek hartutako erabakiari dagokio.

Nolanahi ere den, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiak gutxieneko kide-kopurua izendatuko du, bostekoa, hain

zuzen.

12. artikulua.- Patronatuak Lehendakaria, Lehendakariordea, Diruzaina eta Idazkaria hautatuko ditu; horiek Patronatu barruan izango dituzten karguek gehienez ere urte biko (2) iraunaldia izango dute, baina behin eta berriro hautatuak izan daitezke, aipatu iraunaldiz, hain zuzen.

Patronatuak 9. artikuluan xedatu denaren arabera ezarriko ditu kargu horietarako hautatutako pertsonen eginkizunak eta ahalmenak. Bereziki, Lehendakariaren ordea lehendakariorde kargua duenak egingo du, hura gaixorik dagoenean edo bere karguan jarduteko aldi baterako ezintasuna gertatzen zaionean.

Lehendakari kargua EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiak zuzenean izendatutako patronatukideren batek bete behar du, eta berori hautatzeko, emandako botoen gehiengoa beharko da, abstentzioak, zuritan emandakoak edo baliogabeak kontatu barik.

Idazkariak ez du zertan patronatukidea izan; patronatukide ez izatera, berak parte hartzen duen bilkuretan ahotsa izango luke baina ez botoa. Izendapenaren, iraupenaren eta utzaraztearen araubidea artikulu honexetan adierazitako karguenaren berdin-berdina izango da.

13. artikulua- Patronatukideen karguaren iraunaldia, guztiena, bakoitzaren hautatze-data edozein izanda ere, egutegiko urte bikoa (2) izango da, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiak bere patronatukideak izendatzen dituenetik zenbatzen hasita, mugagabeki berrautatua izatearen kalterik gabe. Epe hori bukatutakoan, bere kautan iraungiko dira haien postuak, inolako formalitaterik edo eskakizunik egin behar gabe; horrek ez du kentzen, bestalde, Lehendakariak eta Idazkariak jardunean segitzea euren eginkizunetan, harik eta patronatukide edota kargu berriak hautatu arte.

Patronatukide kargua doakoa eta ezin eskuordetuzkoa izango da beti, hartan jardutearen ondoriozko gastuak ordaintzearen kalterik gabe.

14. artikulua- Heriotzaren, ezgaitasunaren, inhabilitazioaren, agintaldia bukatu izanaren, uko eginaren edo patronatukide batek kargua uztea eragiten duen beste edozein inguruabarren ondorioz hutsik geratzen diren karguak 11. artikuluan adierazten den eran beteko dira.

Karguren bat edo batzuk hutsik geratzen direnean, Patronatuak jarrai dezake bere eginkizunekin, baldin eta une horretako osakide kopurua bost (5) baino txikiagoa ez bada eta berorietako gehienak EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiak zuzenean izendatutakoak badira. Bestela, Patronatu horren eta patronatukide guztien aldez aurreko iraungitzea gertatuko da, eta berriro ekin beharko zaio haiek hautatzeko prozesuari. Hala eta guztiz ere, estatutu hauetako 13. artikuluak xedatzen duen legez, lehendakariak eta idazkariak jardunean jarraitu beharko dute behin-behinean, harik eta Patronatu eta/edo patronatukide berriak izendatu arte.

15. artikulua.- Patronatua, lehendakari karguan dihardluen pertsonak deitu adina aldiz bildutako da, edo beraren osakideen heren batek eskatuta. Deialdia Lehendakariak egin behar du, eta gutxienez bost eguneko aurretiaz.

Deialdietan bilkurarako eguneko aztergaien zerrenda eman beharko da.

16. artikulua- Patronatua lehen deialdian baliozko legez eratuta geratzeko, bilkuran kide kopuruaren erdia gehi batek egon behar dute, eta bigarren deialdian, edozein izanda ere bertaratutako pertsonen kopurua –gutxienez, hiru–, beti ere haietako bat edo Lehendakaria edo Lehendakariordea bada, azken hori haren ordezkoa egiten ari dela. Erabakiak, emandako botoen gehiengoz hartuko dira, hartarako zenbaketan abstentzioak, boto baliogabeak edo zuritan emandakoak kontuan hartu barik, eta berdinketak lehendakari dihardluenak ebatziko ditu.

Patronatuko kideak dei anizkoitzak edo telekonferentzia, bideokonferentzia medo beste zeinahi komunikabide erabiliz batzartu daitezke, betiere indarrean dagoen legerian ezarritako eskakizunak betetzen badira.

Salbuespenez, Patronatuak erabakiak hartu ahalko ditu batzarrik egin barik, indarrean dagoen legeriari jarraiki eta berarekin bat etorriz.

Erabakiak Akten Liburuan jasoko dira, idatziz, eta horiek Lehendakariak eta Idazkariak baimenduko dituzte, bai halaber aipatu erabakien ziurtagiriak.

17. artikulua- Aurreko artikuluetan xedatutakoengatik ere, Patronatuaren Batza deitutzat joko da eta edozein gairi buruz jarduteko baliozkotzat eraturik geratuko, bertan, edo ordezkatuta, patronatukide guztiak badaude eta bertaratutako pertsonek aho batez onartzen badituzte bai Batza egitea eta horretarako aztergaien zerrenda.

18. artikulua.- Patronatuak bere gerentzia edo kudeaketaren jarduna patronatukideren baten edo hirugarren pertsonaren baten ardurapean utzi dezake, garatzen dituen eginkizunei dagokiena ordainduta; aipatu balizko horietako bigarrenean, aukeratuak ezin izango du patronatukide izan. Izendatutako pertsonak Zuzendari Beterazle kargua izango du eta, nolanahi ere, bere gain hartuko du Fundazioaren zerbitzuan lan egiten duten enplegatuen zuzendaritza.

## IV. ATALBURUA – FUNDAZIOAREN ONURADUNAK

19. artikulua.- Fundazioaren onuraduna edozein pertsona fisiko nahiz juridiko izan daiteke, inolako bereizketarik gabe.

20. artikulua.- Fundazioak onuradunei, berak emandako zerbitzuen truke, kopururen bat ordaintzeko eskatzen dienean, orduan hark onuradunak zehazterakoan, dagokien kopuruaren ordainketa edo abonurako bakarrik egingo du. Era berean, Fundazioak emandako zerbitzuen izaeragatik beragatik

onuradunen kopurua mugatu beharra balego, Fundazioaren Patronatuak haiek zehaztu eta hautatzeko hartzen duen erabakia atzeraezina izango da, honako hauek kontuan hartuta egingo duena: merituak, beharrizanak edo gaitasun ekonomikoa, eta, beste ezaugarri objektibo batzuetan oinarrituta, onuradungaiek zerbitzuei onura ateratzeko dituzten aukerak. Nolanahi ere den, inork ere ezin dezake auzitan ipini Fundazioaren aurkez, ez berorren ezein organoren aurkez, eta ez bakarka ez kolektibo gisa, onura haien gozamena, emanak izan aurretik, ezta halako pertsona zehatz batzuei esleitzera behartu ere.

## V. ATALBURUA – ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

21. artikulua.- Fundazioaren ondarea denetariko ondasunek osatuta egon daiteke, legeek ezartzen dituzten mugekin bakarrik.

22. artikulua.- Fundazioaren kapitala eta ondarea honako hauek osatzen dute:

A) Hasierako zuzkidura, sorrerako eskrituran jasota dagoena.

B) Fundazioak aurrerantzean, erakunde publiko zen pribatuen aldetik, nahiz partikularrengandik, kostu bidez nahiz doan eskuratutako zeinahi ondasun edo eskubide, bereziki, diru-laguntzak, dohaintzak, jaraunspenak edo legatuak.

23. artikulua.- Fundazioaren sorrera-helburuak lortzeko bitarteko ekonomikoak honako hauek osatuta egon daitezke:

A) Fundazioaren kapitalaren edo ondarearen eta berak egiten dituen jardueren emaitzak, errentak, produktuak edo mozkinak.

B) Fundazioaren onuradunengandik jasotako kopuruetatik eratorritako diru-sarrerak, hala izatera, beti ere.

C) Jasotzen dituen *inter vivos* dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak eta edozein titulu dela bitarte eskuratzen dituen bestelako ondasunak.

D) Erakunde publikoetatik jaso ditzakeen diru-laguntzak.

E) Fundazioaren ongile, babesle edo lagun gisa agertzen diren pertsonengandik jaso ditzakeen laguntzak eta ekarpenak.

24. artikulua.- Jaraunspenez jasotako ondasunak, legatuak, dohaintzak, nahiz beste tituluren baten bidez jasotako beste edozein eskualdatzailearen nahiaren arabera eta eskuratze-tituluan ezarritako baldintzen arabera baliatuko edo artatuko dira, kasuan kasu. Hala ere, aldez aurretik ezarritako baldintzarik egon ezean, Patronatuak une oro eta behar bezain adina aldiz egin ditzake beharrezko edo egoki deritzen aldaketak Fundazioaren kapitalaren inbertsioetan eta ondarean, inguruabar ekonomikoak kontuan hartuta, alegia, legez ezarrita dagoen Babeslaritzari jakinarazteko administrazio-prozedura

betetzeari kalterik egin barik.

25. artikulua.- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen zaintza ziurtatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

A) Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira Fundazioaren izenean. Inskribatu beharrekoak izan daitezkeen gainerakoak bakoitzari dagokion Erregistroan inskribatu beharko dira.

B) Balio higigarriak eta funts publikoak Fundazioak banka-erakundeetan gordailatuko ditu.

C) Gainerako ondasun higigarriak, jabetza-tituluak, gordailu-ordezkagiriak eta beste zeinahi jabari-, edukitza-, erabiltze-, erabilpen- eta gozamen-egiaztagiri, nahiz titulartzat Fundazioa bera duten beste edozein eskubide egiaztatzen dituzten agiri guztiak Patronatuak berak, edo berorrek eskuordetutako pertsonak, jagongo ditu.

D) Fundazioaren ondasun guztien inbentarioa egingo da, Patronatuaren ardurapean geratuko den Inbentario Liburu batean jasoko delarik.

26. artikulua.- Fundazioaren Patronatuak erabaki baleza bere onuradunengandik kopururen bat jasotzea, zenbateko hori ezin izan daiteke zerbitzuaren kostu errealari dagokiona baino handiagoa.

27. artikulua.-

1.- Kontzeptu guztien ondorioz lortutako emaitzen kontuko sarreretan, gutxienez, legez ezarritako ehunekoa erabili beharko da Fundazioaren helburuak betetzeko, sarrerak lortzeko egin behar izan diren gastuak kenduta, Fundazioaren helburuak betetzeari dagozkion gastuak izan ezik.

2.- Administrazio-gastuek ez dute gaindituko ezarri beharreko legeriak adierazitako portzentajea.

3.- Aurreko ataletan ezarritako mugetara ez iristera, orduan lortu diren geldikinak erreserben zuzkidura handitzeko erabiliko dira, Patronatuak erabakitzen duen eran.

4.- Nolanahi ere den, Euskal Herriko Fundazioei buruzko Legeak xedatutakoari atxikiko zaio.

## VI. ATALBURUA – ALDAKETA, BAT EGITEA ETA IRAUNGITZEA

28. artikulua:- Patronatuak Estatutu hauetan aldaketak egitea susta dezake, beti ere komenigarri gertatzen bada sorrera-xedea hobeto betetzeko. Aldaketa egiteko erabakia, jaulkitako botoen heren biren baiezkoarekin hartu behar da, hau da, abstentzioak, boto baliogabeak eta zuritan emandakoak kenduta. Gero

erabaki hori EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiari jakinaraziko zaio, berorren mendean utzi beharko baita erabakia berrestea; berreste hori gertatzen ez bada, egin asmo zen aldaketa ez da berriro planteatuko harik eta gutxienez beste urte bi igaro arte.

29. artikulua.- Patronatuak, Estatutuen aldaketa hutsa ez besterik egitea barik, beste fundazio batekin bat egitea erabaki dezake. Horrela izanez gero, erabakia aurreko artikuluan aurreikusitakoari atxikita hartuko da.

30. artikulua.- Egoki izango da Fundazioa iraungitzea.

a) Norbaitek edo Patronatua ez den agintari nahiz aginpideren batek, Patronatuaren beraren berariazko baimenik gabe, sorrera-gutunaren edo Estatutu hauen xedapenak baliogabetu, bestelakotu edo aldatu nahi dituenean.

b) Baldin eta Estatuaren nahiz edozein Autonomia Erkidegoren nahiz beste erakunderen baten asmoa, edo udalbatza, agintari edo auzitegiren batena, Fundazioaren sorrerazko nahia, Estatutu hauetan islatutakoa, nahastea, murriztea, bestelakotzea aldatzea edo haren aurka egitea balitz, edo, nolanahi ere den, hura ez errespetatzea, ez gordetzea eta ez betetzea balitz.

c) Fundazioak dauzkan bitartekoak nahikoa ez izateagatik, edo beste edozein inguruabarrengatik, bere sorrera-xedea betetzea ezinezko gertatuko balitzaio; alegia, Estatutu hauetan aurreikusitakoari atxikita eta, beti ere, Patronatuak, bere osakideen heren biko gehiengoz, Estatutuak aldatzea edo beste fundazio batekin bat egitea erabakiko ez balu.

Hori guztia, Babesletzari, edo horren ordea egiten duen beste erakunderen bati, legez dagozkion ahalmenen kalterik gabe, eta indarrean dagoen legeriari jarraiki.

31. artikulua.-

1. Fundazioa azkenduz gero, likidazio-prozedura gauzatu beharko da azkentzeko arrazoiak betetze aldera –azkentzeko arrazoia bat egiteko prozedura izan ezik–. Patronatuak berak edo organo horrek izendatutako likidazio-batzordeak kudeatuko du likidazioa, Babeslaritzaren kontrolaren mendean.

2. Azken ondare likidoaren eratxikipena –Fundazioak administratu eta/edo bertan gordailututako hirugarrenen ondasunena izan ezik– Fundazioaren helburuekin zuzeneko edo zeharkako lotura daukan eta irabaz-asmorik ez daukan elkarteren bati egingo zaio.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Patronatuak urtero, bere ohiko bilkuran, Fundazioaren “Ohorezko Patronatukide” zerrenda bat ekarri dezake, haien meritu profesionalen, akademikoen edo kulturalen arabera, edo Fundazioaren sorrera-xedea aldezteagatik, Fundazioarekin berarekin kolaboratzeagatik, nahiz antzeko irizpideetan oinarrituta.

   Ohorezko Patronatukideak bizi bitarterako izenda daitezke beren-beregi, eta bestela, hala ez egitera, izaera hori Patronatuaren hurrengo ohiko bileran iraungiko da, salbu eta berriro hala izendatuak izan, mugagabe gerta daitekeena, edo Patronatuak edozein unetan izaera hori etetea erabakita.

   Haiek Patronatuaren ohiko bileren berri izateko eskubidea izango dute; ahotsa izango dute, baina ez botoa, eta beraz, Patronatuaren ekintzez eta erabakiez denaz bezainbatean, ez dute erantzukizunik.

2. Estatu hauetako manuren batean, bakar-bakarrik genero maskulinoa edo femeninoa erabili bada, bi generoentzat baliagarritzat jo beharko da, bien ala bien erabateko berdintasunaren printzipioan funtsaturik, Fundazio honek osoro babesten eta aldezten baitu.

sabino arana fundazioa

MANDOBIDE, 6-3
BILBAO 48007
94 405 64 50

idazkaritza@sabinoarana.eus
www.sabinoarana.eus

## ESTATUTOS DE SABINO ARANA FUNDAZIOA

### CAPÍTULO I – INSTITUCIÓN

Artículo 1º.- Bajo la denominación de SABINO ARANA FUNDAZIOA se halla constituida una Fundación cultural y social de carácter privado y de duración ilimitada, con dependencia orgánica del partido político EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV).

La Fundación desarrollará principalmente sus actividades en el ámbito territorial del País Vasco.

Artículo 2º.- La Fundación tiene personalidad jurídica propia y plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas por las leyes y por estos Estatutos.

Artículo 3º.- El cumplimiento de los fines fundacionales y todo cuanto a ello atañe queda confiado a su Patronato. La Fundación se regirá en todo caso por los presentes Estatutos y por las Disposiciones que en su interpretación y desarrollo establezca el Patronato.

En lo no previsto se regirá por lo dispuesto en la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País vasco y en los reglamentos del registro y del Protectorado de Fundaciones del País vasco, del código civil y demás disposiciones en vigor.

Esta Fundación es una Fundación dependiente del Partido Político "EUZKO ALDERDI JELTZALEA–PARTIDO NACIONALISTA VASCO" (EAJ-PNV), siéndole de aplicación la normativa específica al efecto.

Artículo 4º.- El domicilio de la fundación estará en Bilbao, calle Mandobide 6-3º, si bien el Patronato tendrá facultades para cambiarlo ulteriormente.

SABINO ARANA FUNDAZIOA: EUSKALAUTONOMIAERKIDEGOKOFUNDAZIOENERREGISTROANIZENDATUTA, ERREGISTROA156, HIRUGARRENSEKZIOA. INSCRITA EN EL REGISTRO DE FUNDACIONES DEL PAÍS VASCO, REGISTRO 156, SECCIÓN TERCERA. IFK/CIF: G48275077

La Fundación, para el desarrollo de su labor, puede crear establecimientos y dependencias en otras ciudades, cuando así lo acuerde el Patronato.

## CAPÍTULO II – OBJETO

Artículo 5º.- SABINO ARANA FUNDAZIOA se configura como una entidad sin ánimo de lucro que persigue, como objetivo principal, satisfacer las necesidades de carácter cultural existentes en la sociedad vasca, fomentando para ello todo tipo de iniciativas socio-culturales.

Específica atención se prestará a la promoción, desarrollo y fomento de toda clase de estudios e investigaciones sobre la historia, lengua, cultura, etnografía y realidad del Pueblo Vasco, y en especial aquellos que contribuyan al mejor conocimiento y difusión del pensamiento nacionalista democrático y progresista. Para ello se instrumentalizará la edición de publicaciones y la organización de actividades inspiradas en el respeto a la libertad, la democracia y los derechos humanos individuales y colectivos en el marco de una sólida vocación europeísta y occidental.

Dentro de este amplio espíritu, se otorgará prioritaria importancia a estrechar lazos de común conocimiento con la población vasca de la diáspora, a la organización de actividades formativas y, en general, todo aquello que profundice en el conocimiento de la identidad vasca.

Artículo 6º.- Para el cumplimiento de este fin la Fundación desarrollará en la medida que sus medios económicos lo permitan, y de acuerdo con los programas concretos que en cada caso apruebe el Patronato, las siguientes actividades, todas ellas destinadas a su fin fundacional:

- Conceder ayudas de estudios e investigación.

- Organizar y financiar congresos, cursos, seminarios, conferencias, aniversarios históricos, así como otros actos de tipo cultural, formativo y humanista.

- Realizar exposiciones o exhibiciones monográficas.

- Preparar, elaborar, editar y difundir artículos, libros, revistas, folletos, vídeos, filmes y cualquier otro soporte audiovisual o escrito, existente

o que en el futuro se cree, en orden y desarrollo de los fines de la Fundación.

- Crear o, en su caso, participar en asociaciones o fundaciones afines que contribuyan a una mejor realización del fin fundacional.

- Realizar trabajos de investigación y estudio.

- Recopilar vestigios de valor documental o sentimental que ayuden a la reconstrucción de la historia del Pueblo Vasco. Actividades de archivo y museo.

- Canalizar y promocionar las actividades que puedan ir surgiendo en su entorno social y que tuvieran relación con el objeto de la Fundación

- Publicar resultados de sus trabajos de investigación y estudio.

- Conceder premios y otras formas de financiación a labores desarrolladas en periódicos, libros, ensayos, radio, televisión y, en general, en cualquier medio de información y difusión existente o que se cree en el futuro, así como a aquellas personas o instituciones que hayan destacado por su fructífera labor en cualquier campo de la vida que tuviera relación con el objeto de la Fundación.

- Cualesquiera otras actividades que la Junta de Patronato considere conveniente para cumplir el fin fundacional.

Si por razones organizativas, económicas, o de cualquier otro tipo, alguna de las actividades anteriores tuviera sustantividad propia e independiente dentro de la actividad general, la Fundación podrá en cualquier momento configurarla con una estructura interna diferenciada de Grupo de Trabajo, Equipo, Instituto o figura similar, incluso dotándolo de una reglamentación interna específica, pero siempre dentro de la estructura única y común prevista en el artículo 11 de estos Estatutos, de la soberanía del Patronato para crearlo, extinguirlo o incluso modificarlo en cualquier momento y de la contabilidad única de la misma.

Artículo 6º Bis.- Sabino Arana Fundazioa se guiara en su actuación por los principios siguientes:

- Publicidad y transparencia, dando información suficiente de sus fines y actividades para que sean conocidos por la población en general y sus eventuales personas beneficiarias.

- Imparcialidad y no discriminación en la determinación de las personas beneficiarias, así como de sus actividades y prestaciones.

- Promoción de directrices de actuación mediante la creación de códigos de conducta y buenas prácticas de funcionamiento.

- Incentivación del espíritu de servicio de los miembros del Patronato, así como de la priorización de los intereses de la Fundación frente a los propios o particulares.

- Colaboración leal y permanente con el Protectorado de Fundaciones del País Vasco.

- Defensa y protección del efectivo cumplimiento de la obligación de destinar el patrimonio y rentas de la Fundación a los fines fundacionales, de acuerdo con lo previsto en los estatutos de la Fundación y en la normativa en vigor.

- Igualdad de género.

## CAPÍTULO III – ÓRGANOS

Artículo 7º.- La representación, el gobierno y la administración de la Fundación están atribuidos de modo exclusivo al Patronato.

Artículo 8º.- El Patronato es soberano en el cumplimiento de su misión, ejercerá sus facultades con independencia y sus actos serán definitivos o inapelables, sin más limitaciones que las establecidas en los Estatutos y en las Leyes.

Artículo 9º.- El Patronato es el titular exclusivo de todas las facultades y potestades que en derecho se precisen para el eficaz desempeño del fin fundacional e interpretará, sin limitación alguna, los presentes Estatutos, con sometimiento en todo caso a las prescripciones legales vigentes.

El Patronato podrá delegar sus facultades en uno/a más de sus miembros y nombrar apoderados/as generales o especiales con funciones o responsabilidades mancomunadas o solidarias.

La delegación se realizará en todo caso conforme a lo previsto en la legislación vigente.

Artículo 10º.- En el ejercicio de las más amplias facultades de representación, gobierno, disposición y administración, el Patronato podrá realizar toda clase de actos y negocios jurídicos, conforme a los presentes Estatutos y a lo dispuesto en las Leyes.

Artículo 11º.- El Patronato estará constituido por un mínimo de cinco (5) y un máximo de nueve (9) personas, que serán designados por EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO, a quien corresponderá su revocación, sustitución, en todo caso y momento, así como su reelección de forma indefinida.

Si EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO no designare nueve patronos, y los nombrados consideraran la oportunidad de completar el número hasta dicho límite, podrán hacerlo, nombrando a personas cuya cualificación personal o profesional sea de interés para los fines fundacionales.

Los miembros así designados ejercerán su cargo hasta la caducidad del nombramiento de los Patronos que los designaron, y su régimen de nombramiento, sustitución, revocación y renovación en su caso, que podrá serlo indefinidamente, corresponderá tanto a EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO o al acuerdo adoptado por la mayoría de los Patronos por éste designados.

En todo caso, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO designará el número mínimo de cinco miembros.

Artículo 12º.- El Patronato elegirá Presidente/a, Vicepresidente/a, Tesorero/a y Secretario/a, cuyos cargos dentro del Patronato tendrán un periodo de vigencia máximo de dos (2), años pudiendo ser reelegidos/as indefinidamente por dicho espacio de tiempo.

El Patronato establecerá, según lo dispuesto en el Art. 9, las funciones y facultades de las personas designadas para tales cargos. En particular, la persona que ostente la vicepresidencia sustituirá a la que ostente la presidencia en los casos de ausencia, enfermedad o imposibilidad transitoria para el desempeño del cargo.

El cargo de Presidente/a deberá ser desempeñado por Patrono de los designados directamente por EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO, siendo necesario para su nombramiento la mayoría de los votos emitidos, excluidos las abstenciones, votos en blanco y/o nulos.

El Secretario/a podrá no ser Patrono, en cuyo caso tendrá voz pero no voto en las reuniones a las que asista. Su régimen de nombramiento, duración y cese será idéntico al de los demás cargos señalados en este artículo.

Artículo 13º.- La duración del cargo de todos los Patronos/as, cualquiera que sea la fecha de su nombramiento, será por un plazo de dos (2) años naturales a contar desde la fecha en la que EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO hubiera nombrado los suyos, sin perjuicio de su reelección indefinida. Llegado dicho término, caducarán automáticamente en sus puestos sin necesidad de formalidad o requerimiento alguno, sin perjuicio de que el Presidente/a y el Secretario/a permanezcan en funciones en sus puestos hasta la reunión en la que designen nuevos Patronos y/o cargos.

El cargo de Patrono/a será siempre gratuito e indelegable, sin perjuicio del reembolso de los gastos en que incurra por razón del mismo.

Artículo 14º.- Las vacantes que se produzcan por muerte, incapacidad, inhabilitación, transcurso del periodo de su mandato, renuncia, remoción o cualquier otra circunstancia que produzca el cese de una persona miembro del Patronato, se cubrirán en la forma señalada en el artículo 11.

En caso de vacantes, el Patronato podrá continuar en sus funciones siempre que su número no sea inferior a cinco (5) y que la mayoría de ellos correspondan a miembros de los designados directamente por EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO. En caso contrario, se producirá la caducidad anticipada de dicho Patronato y de todos sus miembros, iniciándose nuevamente el proceso de su designación, sin per-

juicio del deber de permanencia provisional, en funciones, de Presidente/a y Secretario/a, que se ha indicado en el art. 13 de estos Estatutos, hasta que se designe nuevo Patronato y/o cargos.

Artículo 15º.- El Patronato se reunirá en Junta cuantas veces sea convocada por la persona que ostente la presidencia, o lo pidan un tercio de sus miembros. La convocatoria habrá de hacerse por el Presidente/a, con cinco días de anticipación como mínimo.

Las convocatorias precisarán el orden del día de las reuniones.

Artículo 16º.- El Patronato quedará válidamente constituido en primera Convocatoria cuando a la sesión concurran la mitad más uno/a de sus miembros, quedando constituido en segunda convocatoria cualquiera que sea el número de personas asistentes -con un mínimo de tres-, siempre que entre ellas se encuentren el/la Presidente/a o el/la Vicepresidente/a cuando sustituya a aquel/aquella. Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos emitidos, excluidos en el cómputo las abstenciones y los votos nulos y/o en blanco, dirimiendo los empates el voto de la persona que ocupe la presidencia.

El Patronato podrá reunirse mediante multiconferencia, videoconferencia o cualquier otro medio de comunicación, siempre que queden garantizados los requisitos previstos en la legislación vigente.

Con carácter excepcional, el Patronato podrá adoptar acuerdos sin la celebración formal de reunión, en los términos previstos en la legislación vigente y de conformidad con la misma.

Los acuerdos se transcribirán en el Libro de Actas, los cuales serán autorizados por el/la Presidente/a y el/la Secretario/a, así como las certificaciones de las mismas.

Artículo 17º.- No obstante lo dispuesto en los artículos anteriores, el Patronato se entenderá convocada y quedara válidamente constituida para tratar cualquier asunto, siempre que estén presentes o representados la totalidad de sus miembros y las personas asistentes acepten por unanimidad la celebración de la Junta y su orden del día.

Artículo 18º.- El Patronato podrá encomendar el ejercicio de la gerencia o gestión bien a algún/a Patrono/a, bien a terceras personas con la remuneración adecuada a las funciones desempeñadas supuesto segundo éste en el que el nombrado/a no podrá ser Patrono. La persona designada ostentará el título de Director/a Ejecutivo/a y asumirá la dirección del personal al servicio de la fundación, en todo caso.

## CAPÍTULO IV – BENEFICIARIOS DE LA FUNDACIÓN

Artículo 19º.- Podrán ser beneficiarios/as de la Fundación, cualesquiera personas naturales o jurídicas, sin discriminación alguna.

Artículo 20º.- Cuando la Fundación exija a las personas beneficiarias el abono de alguna cantidad por los servicios que preste, la determinación por ésta de los/as beneficiarios/as se deberá exclusivamente realizar por el pago o abono de la cantidad correspondiente. Así mismo, cuando por la propia naturaleza de los servicios prestados por la Fundación, se derive la necesidad de limitar el número de personas beneficiarias, la determinación y selección de éstas se realizará con carácter irrevocable por el Patronato de la Fundación, teniendo presentes los méritos, necesidades o capacidad económica y posibilidad de aprovechamiento por los/as aspirantes en base a otras características objetivas. En todo caso, nadie podrá alegar ni individual ni colectivamente frente a la Fundación o sus órganos el goce de dichos beneficios, antes que fuesen concedidos, ni imponer su atribución a personas determinadas.

## CAPÍTULO V – PATRIMONIO Y RÉGIMEN ECONÓMICO

Artículo 21º.- El patrimonio de la Fundación puede estar integrado por toda clase de bienes, sin otras limitaciones que las impuestas por las leyes.

Artículo 22º.- El capital y patrimonio de la Fundación estará integrado:

A) Por la dotación inicial, recogida en la escritura fundacional.

B) Por cualesquiera otros bienes o derechos que en lo sucesivo adquiera la Fundación a título oneroso o a título gratuito de entidades públicas o privadas y de particulares, en especial subvenciones, donaciones, herencias o legados.

Artículo 23º.- Los medios económicos para el logro de la finalidad fundacional podrán estar compuesto por:

A) Los frutos, rentas, productos o beneficios del capital o patrimonio y de las actividades que realice la Fundación.

B) Los ingresos derivados de la percepción en su caso de cantidades de las personas beneficiarias de la Fundación.

C) Las donaciones inter-vivos, herencias y legados que reciba y los demás bienes que adquiera por cualquier título.

D) Las subvenciones que pueda recibir de entes públicos.

E) Las ayudas y aportaciones de aquellas personas que tengan la condición de benefactoras, protectoras o amigas de la Fundación.

Artículo 24.- Los bienes adquiridos por herencia, legados, donaciones o por cualquier otro título, se aplicarán o conservarán, en su caso, según la voluntad de la persona transmitente y condiciones establecidas en el título de adquisición. Sin embargo, cuando no existieran condiciones establecidas, el Patronato podrá en todo momento y cuantas veces fuere preciso, a tenor de las circunstancias económicas, efectuar las modificaciones que estime necesarias o convenientes en las inversiones del capital y patrimonio de la Fundación, sin perjuicio del cumplimiento del procedimiento administrativo de comunicación al Protectorado legalmente previsto.

Artículo 25º.- Para asegurar la guarda de los bienes constitutivos del patrimonio de la Fundación se observarán las siguientes reglas:

A) Los bienes inmuebles y derechos reales, se inscribirán en el Registro de la Propiedad a nombre de la Fundación. Los demás bienes susceptibles de inscripción deberán inscribirse en los Registros correspondientes.

B) Los valores mobiliarios y fondos públicos serán depositados por el Patronato en entidades bancarias.

C) Los demás bienes muebles, los títulos de propiedad, los resguardos de depósito y cualesquiera otros documentos acreditativos del dominio, posesión, uso, disfrute o cualquier otro derecho de que sea titular la Fundación, serán custodiados por el propio Patronato o por la persona en quien éste delegue.

D) Todos los bienes de la Fundación se inventariarán en un Libro de Inventario que estará a cargo del Patronato.

Artículo 26º.- Si el Patronato de la Fundación acordase la percepción por sus beneficiarios/as de alguna cantidad, la misma nunca podrá exceder de la que corresponda al coste real del servicio.

Artículo 27º.-

1.- Deberá destinarse a la realización de los fines fundacionales al menos el porcentaje legalmente establecido de los ingresos de las cuentas de resultados obtenidas por todos los conceptos, deducidos los gastos en que hayan incurrido para la obtención de los ingresos, excepto los referentes al cumplimiento de los fines fundacionales.

2.- Los gastos de administración no excederán del porcentaje que se establezca en la legislación aplicable.

3.- El remanente que se obtenga caso de no agotarse los límites establecidos en los apartados anteriores, se destinará a incrementar la dotación o las reservas, según lo acuerde el Patronato.

4.- En todo caso se estará a lo dispuesto en la Ley de Fundaciones del País Vasco y disposiciones complementarias.

## CAPÍTULO VI – MODIFICACIÓN, FUSIÓN Y EXTINCIÓN

Artículo 28º.- El Patronato puede promover la modificación de los presentes Estatutos siempre que resulte conveniente para el mejor cumplimiento del fin fundacional. El acuerdo de modificación habrá de ser adoptado por un voto afirmativo de dos tercios de los emitidos, esto es, excluidas abstenciones y los votos nulos y/o en blanco. Acuerdo cuya eficacia quedará supeditada a la ratificación de EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO, a quien se notificará el mismo; si no se produjera tal

ratificación, la modificación pretendida no podrá volver a ser planteada en un plazo mínimo de dos años.

Artículo 29º.- El Patronato podrá acordar, en lugar de la simple modificación de los Estatutos, su fusión con otra Fundación. En tal caso, el acuerdo se tomará con arreglo a lo previsto en el artículo anterior.

Artículo 30º.- Procederá la extinción de la Fundación.

a) Cuando las disposiciones de la carta fundacional o de los presentes Estatutos pretendan ser revocados, alterados o modificados por persona, autoridad o jurisdicción distinta del Patronato y sin expreso consentimiento de este.

b) En el caso de que el Estado, cualquier Comunidad Autónoma, u otro organismo, Corporación, autoridad o tribunal, pretendieran interferir, mermar, alterar, modificar, contrariar o de cualquier otra forma, no respetar, observar, guardar y cumplir la voluntad fundacional, reflejada en estos Estatutos.

c) Llegado el caso de que por insuficiencia de los medios de que dispone la Fundación o por cualquier otra circunstancia, resultara imposible el cumplimiento del fin fundacional, de acuerdo con las previsiones de estos Estatutos y de la carta fundacional, y siempre que el Patronato no acordara por mayoría de dos tercios de sus componentes la modificación de los Estatutos o la fusión con otra Fundación.

Todo ello sin perjuicio de las facultades que legalmente correspondan al Protectorado, u organismo que le supla, según la legislación vigente.

Artículo 31º.-

1. La extinción de la Fundación, excepto en los supuestos en que su origen sea un procedimiento de fusión o el cumplimiento de las causas extintivas determinará la apertura del proceso de liquidación, el cual se llevará a cabo por el patronato o una comisión liquidadora nombrada por dicho órgano, bajo el control del Protectorado.

2. La atribución del patrimonio líquido final resultante -salvo los bienes de terceros administrados por la Fundación y/o depositados en la

misma- será realizada a cualquier entidad relacionada directa o indirectamente con los fines de la Fundación y que no tenga ánimo de lucro.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA**

1. Anualmente, en la reunión Ordinaria del Patronato, éste podrá aportar un listado de "Patronos de Honor" de la Fundación, en función de sus méritos profesionales, académicos o culturales, defensa de los fines fundacionales, colaboración con la misma, y criterios similares.

   Los Patronos de Honor podrán ser designados con carácter vitalicio de forma expresa y, si así no lo fueren, caducarán en tal consideración en la siguiente reunión ordinaria del Patronato, salvo que fueran nuevamente así distinguidos, lo cual podrá serlo indefinidamente, o si el Patronato decidiera en cualquier momento su cese.

   Corresponderá a los mismos el derecho a ser informados de las reuniones Ordinarias del Patronato, en las cuales tendrán voz pero no voto, razón por la que no responden de los actos y acuerdos del mismo.

2. Si en algún precepto de estos Estatutos se ha utilizado el género masculino o femenino únicamente, deberá siempre entenderse referido a ambos géneros en base a la absoluta igualdad de los mismos, que esta Fundación ampara y defiende categóricamente.